

**zaraobe**  
institutua

**2019-2020 PROMOZIOA**

**66 URTE ESKUALDEAN**  
52 zenbakia 2021eko urtarrila



2 BATX F



2 BATX E



2 BATX N

Zarata handirik egin gabe, egoerak agintzen zuen legez, beste belaunaldi batek bukatu du bere ibilbidea institutuan. 2002an jaiotako horiek izan dira, gehienbat, batxilerra burutu dutenak. Zaraobeko irakasleok beti izango dugu gure bihotzean tokitxo bat euren ibilbidea gogoratzeko. Horregatik gazteok, beti arte.

# EL AÑO QUE NUNCA OLVIDAREMOS

INOIZ AHAZTUKO  
EZ DUGUN URTEA



## AURKIBIDEA

El año que nunca olvidaremos / Inoiz ahaztuko ez dugun urtea .....	2
Pandemia .....	3
Gure proiektuak.....	5
Hobekuntzak .....	8
Ohorezko matrikula .....	9
Digitalki on .....	10
Sei ikaslek hartu dute parte mugikertu ikerketan .....	10
Euskaraldia .....	10
Iker Loidi .....	11
Praktikaldia .....	11
Eskola kontseiluaren berriztapena.....	11
Jarduera osagarriak.....	12
Zaraobetarrak.....	13
Puntu morea.....	14
Jubilazioa.....	16

Uste dut gutako bakoitzak titular hau sinatzen dugula, pandemiaren tsunamiak denok aldi berean harrapatu gaituelako. Zaraobeko esperientzia eskola-komunitateko kide guztiek partekatzen duten esperientzia da: programazioak egokitu eta online eskolak ematen ikasi behar izan zuten irakasleak, etxeko lanez gainezka zeuden ikasleak, edo eta, beharrak bultzaturik, seme-alabak laguntzeari ekin zioten gurasoak. Hori guztia, gainera, prentsatik, telebistatik eta sare sozialetatik iristen zitzaizkigun albiste tristeek eta konfinamendu zorrotzak sortutako egonezin horretan.

Baina gizakia animalia moldagarria da, era guztietako egoeretara egokitzeko gai, eta, pixkanaka-pixkanaka, orain dela gutxira arte zientzia fikzioa iruditzen zitzaiguna geureganatu dugu: etxeratze-aginduak, bideokonferentziak, maskarak, tenperatura hartzea, distantzia soziala... Zaraoben lanean ari gara, uste dugu zintzotasunez eta borondate onez, gutxieneko arau horiek errespetatu daitezkeen, ikasleek beren hezkuntza-prozesua aurrez aurre jarraitu ahal izan dezaten. Hori da, ziur aski, guztiok lortu nahi dugun helburua. Eta, unea iritsita, online-eskolen agertoki batera aldatu behar bada, gure konpromisoa da gure esku dagoen guztia egitea, ikasleek, lehenik eta behin, beharrezko baliabide guztiak izan ditzaten eta, bigarrenik, hurbileko eta kalitatezko hezkuntza bermatuta izan dezaten.

Creo que cada uno de nosotros/as suscribimos este titular, porque el tsunami de la pandemia nos ha arrollado a todos por igual. La experiencia de Zaraobe es una experiencia compartida por todos los miembros de la comunidad escolar: el profesorado que tuvo que adaptar sus programaciones y aprender a dar clases online, el alumnado que de repente se vio en casa desbordado por los deberes, los padres y madres que tuvieron que ponerse manos a la obra ayudando a sus hijos/as. Todo ello, además, en ese clima de zozobra generado por el confinamiento estricto y las luctuosas noticias que nos llegaban por la prensa, tv, redes sociales...

Pero el ser humano se adapta a todo tipo de situaciones, y, poco a poco, hemos ido normalizando lo que hasta hace poco nos parecía ciencia ficción: los toques de queda, las videoconferencias, las mascarillas, la toma de temperatura, el distanciamiento... En Zaraobe estamos trabajando, creemos que con honestidad y buena voluntad, para que se respeten esas normas mínimas que harán posible que el alumnado pueda seguir su proceso educativo en modo presencial. Este es el objetivo que, a buen seguro, queremos todos/as. Y si, llegado el momento, hay que cambiar a un escenario de clases online, nuestro compromiso es hacer todo lo que esté en nuestra mano para que el alumnado, en primer lugar, disponga de todos los medios necesarios y, en segundo, tenga garantizada una educación cercana y de calidad.





# PANDEMIA

## BABES-BISERAK

2020-ko Martxoaren 17a. Denok geunden itxita, izututa, nahastuta, eta bat-batean elkartasun eta konpromiso mugimendu bat hasi zen sortzen ustekabeen. Mugikorrean mezu bat jaso nuen 3D inprimagailuak babes-materiala egiteko nola erabiltzen ari ziren azaltzeko, eta une horretan Institutuan genituen baliabide guztietan pentsatzen hasi nintzen: inprimagailu berriak, PLA erosi berria materiala... Dena geneukan...



Zuzendaritzarekin eta LHko irakasleekin kontsultatu nuen, eta zenbait aukera baloratu genituen, hala nola ikastetxetik lan egitea, horrek zer zekarren, kontaktu-arriskua, ordutegi mugatua, mugikortasun-baimenak... edo inprimagailuak etxera eramatea. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe, guztion artean erabaki genuen aukerarik onena inprimagailu guztiak helbide bakar batean zentralizatzea zela, eta, horrela, bolumen handiagoa lortzea, eta gertatzen ari zen egoera deslokalizatzea saihestea.

Hau da fabrikatu zen lehen biseretako bat, modeloa aldatzen joan zen, egiten ziren ekarpenen arabera.

Eta banaketa modu askotara egin zen, eskura, taxiarekin, anbulantziekin,... ahal izan zen bezala.

Maiatzetik aurrera, ikasgeletarako itzulera aurrez aurre prestatu behar izan genuenez, nahikoa genuen.

Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke ekimenean zuzenean parte hartu ez zuten arren egun haiek guztiontzat ahalik eta normalena izan zitezela lagundu zuten irakasle, garbitzaile, atezain eta abarrei, Eskerrik asko!!!!

Eskerrik asko!!!!, egun ezberdin haietan "normaltasun berria" berreskuratzen laguntzeagatik.


### HEZKUNTZA TELEMATIKOA KONFINAMENDUAN. GAITASUN DIGITALAK GARATZEN.

Zaraobeko irakasleok zein ikasleok askoz hobeto ezagutzen eta erabiltzen ditugu onlineko aplikazioak egoerak bultzatuta. Hona Lanbide Heziketako esperientzia.




Otsailean coronavirusari buruzko informazioa entzuten hasi ginenean, ez genekien zehazki gainera zetorkiguna. Ezta martxoan ere ikasleak etxera bidali genituenean, ez ginen guztiz konzienteak zeri aurre egin behar genion. Gero, konfinamendua etorri zen eta prozesu osoan bi hilabete baino gehiago egon ginen klase presenzialak eman ahal izan gabe.

Argi dago gure Hezkuntza sistema, pentsatuta eta prestatuta dagoela, hezkuntza presenziala egiteko. Are gehiago Lanbide Heziketan, non ikasleek egin behar dituzten gauzak muntatu, desmontatu, programatu... diren. Halaber, argi dago garai hauetan baliabide teknologiko ugari daukagula, eta egoera txarretan ere, gauza positiboak atera daitezke harrigarria badirudi ere.



klase telematikoa Meet-en bidez · ikasle baten aurkezpen telematikoa



Programacion Rapid  
58 Rustak6 - 2020/04/04 19:04  
Youtubeko bideo bat grabatuta robotikaren mugimenduak azaltzen



Horrela egin behar izan genuen martxotik aurrera, egoerak behartuta, aplikazio askoren erabilera hasi ginen ikasten. Googleko Hangouts eta Meet aplikazioek besteak beste, ahalbidetu zuten elkarrekin etxeetan sartzea bideokonferenziak eta aurkezpenak egiteko. Horrela, komunikatuta eta klaseen dinamikarekin jarraitu ahal izan genuen, taldeko lanak, eta abar eginez. Horrez gain, pantaila grabatzeko aplikazioen munduan sartu ginen bideotutorialak grabatuz.

Handik Youtubeko kanalak izatera urrats txiki bat besterik ez zegoen, eta ondorioz gaur egun irakasle asko Youtuber apalak dira: 10 bat bideo, 60 ikustaldi baino gehiago, suskriptore gutxi batzuk... Nork esango zuen hau ikasturtea hasi baino lehen! Hori pentsaezina zen egoera normal batean, argi dago konfinamenduaren ondorioz teknologia-ikuspuntutik askoz hobeto prestatuta gaudela etorkizunerako ikasleok zein irakasleok.

### GAUR EGUNGO EGOERA

ZARAOBE BHI ikastetxean, gainontzeko toki publikoetan bezala, Covid-19ari aurre egiteko hainbat segurtasun neurri jarri ziren martxan irailean, ikasleak klasera etortzen hasi aurretik, esanguratsuenak ondorengo lerroetan zehazten direnak dira:

- Sarrerak eta irteerak erregulatzea.
- Ikasleei tenperatura hartzen zaie goizeko lehen orduetan.
- Ikastetxean sartu eta ateratzean ikasleek eskuak hidrogelarekin garbitzea ziurtatzen da.
- Musukoa edo maskara ondo jarrita eramatea ikastetxean dauden bitartean nahitaezkoa da.
- Ikasgelak maiz aireztatzen dira.
- Gelaz aldatu behar den bakoitzean, bakoitzak bere mahaia eta eserlekua desinfektatu behar du.
- Ahal den neurrian, segurtasun tartea errespetatzen saiatzen da.
- Ikaslaren batek sintomak izatekotan, adinez nagusia baldin bada etxera bidaliko da. Adin txikikoa izanez gero, bere gurasoei deitzen zaie bere bila etortzeko. Bitartean, gela berezi bat egokitu da ikaslea itxaron ahal izateko besteekin kontakturik izan gabe.



Arau hauekin zorrotzak izan gara, honelako arazo bati aurre egiteko guztion konpromezua ezinbestekoa baita. Hala ere, arauak betetzeko zailtasunak izan dira.

Hala eta guztiz ere, esan daiteke Zaraoiben BHI-n kutsaduraren intzidentzia txikia izan dela. Kasuen erregistro bat eramaten ari gara, bai sintomak dituztenak, bai konfinatuta daudenak gertuko kontaktua direlako eta baita ere positibo izan direnak. Zentzu honetan, baieztatutako kasu positibo gutxi izan dira. Gertatu den guztietan, Osasun Saitetik bidalitako protokoloak egoki bete dira. Positibo izan diren ikasleak konfinatu behar izan dutenez, beharrezkoak izan diren bitartekoak ezarri dira, ikasketa prozesuari jarraipena emateko. Irakasleek lan espezifikoak sortu dituzte ikasle bakoitzari eta egin beharreko lanari egokituz.

Covid-19ak eragindako egoera oso konplexua da. Gizartean eman den bilakaera eta hartu izan diren neurriak egunetik egunera aldatuz doaz eta, ikastetxean ere, horretara moldatu behar izan dugu. Honetarako, **denon borondatea eta ahalegina beharrezkoak dira** elkar babesteko eta gure institutuan eragina ahalik eta txikiena izateko. **EUTSI GOGOR!!**

# GURE PROIEKTUAK



## HAUSPOA

Probablemente uno de los proyectos que más cambios ha supuesto en Zaraobe este año es el proyecto Hauspoa. El proyecto nos permite ofrecer al alumnado y a las familias un horario complementario donde se realizarán actividades y talleres que aportan un valor añadido a nuestro Instituto.

La implantación del proyecto Hauspoa ha traído consigo un cambio en el horario de la **ESO** que implica que todas las clases lectivas se impartan en turno de mañana (08:30-14:30), tal y como se hace en los meses de septiembre y junio, y que en turno de tarde (15:10-16:30) los lunes, martes y miércoles se mantenga el centro abierto para refuerzos, talleres y uso de aulas de informática.

Ziurrenik, aurten Zaraoben aldaketa gehien eragin dituen proiektuetako bat Hauspoa proiektua da.

Hauspoa proiektuaren ezarpenak DBHko ordutegia aldatzea ekarri du, hau da, eskola guztiak goizeko txandan ematea (08:30-14:30), irailean eta ekainean egiten den bezala, eta arratsaldeko txandan (15:10-16:30) astelehen, astearte eta asteazkenetan ikastetxea irekita mantentzea errefortzu, tailer eta informatika-gelen erabilerarako. Eskolaz kanpoko ordu horiek doakoak eta borondatezkoak dira, baina bertaratzeko konpromisoa dakarte berekin. Arratsalde horietan, hala eskatzen eta behar duten ikasleek ikastetxea irekita izango dute, irakasleekin, ikasgaietan laguntzeko.

Ordutegia 15:10etik 16:20ra bitartekoa da. Gaur egun, 90 ikasle parte hartzen dute proiektu honetan, eta oraindik izena eman ez duten ikasle guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera.

Hauspoa taldeak eta irakasleek profesionaltasunez egin diote aurre erronka berri honi, gure ikastetxeari ekarriko dion onura kontuan hartuta. Euskararen erabilera eskola-orduetatik kanpo sustatzea da helburu nagusia; hezkuntza-komunitate osoari topagune gehiago eta arreta emateko denbora gehiago eskaintzea, eskola-

orduetatik kanpo eta modu zehatzagoan, batez ere behar eta nahi gehien duten ikasleei (ekitatea) eta gehien eskatzen dutenei (bikaintasuna).

## BIDELAGUNA

Hauspoarekin batera, aurten ere Bidelaguna programa martxan jarri dugu.

Bidelaguna programa ikasleei laguntzeko programa bat da. DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzako dago bideratuta. Horrela, gure ikasleen dibertsitate handiagoari egunetik egunera erantzun handiagoa ematen zaio.

Jarduerak urriaren 13an hasi ziren eta maiatzaren 29an amaituko dira. Programa honetan sartzeko tutoreek eta orientatzaileak, irakasleekin bildu ondoren, ikasleak proposatuko dituzte (gehienez 15 ikasle). Astero 4 ordu izango dira, astelehen, astearte eta asteazkeneko, bi txandan bananduta: 15:05-15:45 (garraiatuak) eta 15:45-16:25 (ez garraiatuak).

Hauspoan Zaraobeko irakasleok ikasleekin lan egiten dugu. Bidelagunan, berriz, gure konfiantzako kanpoko monitorea dago, eta momentuz, badaude 14 ikasle oso ondo lanean programa honetan.

## JANTOKIA/COMEDOR



El horario del comedor se ha adaptado, lógicamente, a las actividades académicas del centro. El servicio se ofrece en horario de 14:30 a las 15:45 con unos 90 comensales repartidos en dos turnos. Debido a la pandemia se ha cambiado la disposición de las mesas y se han adquirido bandejas individuales para garantizar todas las medidas de prevención.

Jantokiko ordutegia, logikoa denez, ikastetxeko jarduera akademikoetara egokitu da. Zerbitzua 14:30etik 15:45era bitartean eskaintzen da, 90 bat mahaikiderekina, bi txandatan banatuta. Pandemiaren ondorioz, mahaien antolaketa aldatu da eta bana-banako erretiluak erosi dira prebentzio-neurri guztiak bermatzeko.



## 1x1 PROGRAMA



1x1 programak inplikatzan du ikasle bakoitzak bere ordenagailua edukitzea eskolan. Luze hausnartutako proiektu bat da, 17-18 ikasturtean Sare-Hezkuntza programan sartu ginenetik, aurtien 3. DBHn ezarri dugun arte. Bitartean, beste esperientziak ezagutu, institutuko wifi sarea hobetu, material digitala sortu eta irakasleen formakuntza ere garatu dugu. Gaur egun, horrela, 3.DBHn Chromebooka bihurtu da eskola euskarri funtsezkoena. Inbertsio garrantzitsua izan da familia guztientzat, eta ikasleek etekina aterako diotelakoan gaude.

Une honetan, 1. ebaluazioa egin ondoren, esan daiteke irakasleok modu onean eta positibotzat jotzen dituztela hasierako emaitzak. Ikasleak ondo moldatu dira eta modu eraginkorrean erabili dituzte gailuak. Arauak orokorrean bete dira eta egokitzapen batzuk tartean, positibotzat jotzen da ordenagailuen ezarpena.

Hainbat ikasgaitan liburu.net aleak, hau da, lizentzia digitalak dituzte ikasleek, eta besteetan departamentuek sortutako materiala erabiltzen dute. Era berean dispositiboak institutuan zein etxeetan erabiltzen ari dira ikasleak. Erronka handia izan da beraz, guztiontzat, baita familientzat ere.

El programa 1x1 implica que cada alumno o alumna disponga de su propio ordenador en la escuela. Es un proyecto largamente madurado, desde que entramos en el programa Sare-Hezkuntza en el curso 17-18, hasta que lo hemos implantado este año en 3º de la ESO. Mientras tanto, hemos conocido otras experiencias, hemos mejorado la red wifi del centro, hemos desarrollado la formación del profesorado y creado material digital. Hoy en día, así pues, en 3º ESO el Chromebook se ha convertido en el soporte escolar fundamental. Ha sido una inversión importante para todas las familias que, confiamos, revierta en beneficio del alumnado.


De momento, la experiencia tras la 1º evaluación ha sido positiva. El alumnado se ha adaptado bien y salvo algunos pequeños detalles que habrá que limar, los resultados han sido satisfactorios.

## ESKOLAKO AGENDA 2030

Kurtso honetan Eskolako Agenda 2030 programaren barruan klimaren aldeko ekintza landuko dugu. Zaraobe Institutuan DBHko ikasleekin hainbat ekintza, Klima aldaketa eta kontsumoa eta Klima aldaketa eta energia burutuko ditugu.

## ERASMUS

### Brainport traineeship Van Dijk Groep



We were lucky that Kerman responded at our advertisement.

From the beginning he gave us a good feeling, he is very mature for his age and an easy-going nice guy. We found him a room nearby our factory, so he does not have to travel long to get to work.

*I picked him up Sunday evening at the train station Eindhoven because "the Brainport man" was not there.*

*02-03-2020 was his first day at Van Dijk Groep. A lot of new things for everyone. Getting to know each other and the work at Van Dijk Groep.*

*Kerman is a quick learner, you show him something and he understands.*

*When it is a little bit difficult he also can say it to explain it again.*

*Like I said he is very easy to work with. Then Corona came.*

*A difficult time for Kerman. Are you staying in the Netherlands or are you rather going home?*

*We talked a lot about this. I think he made a good choice to stay here.*

*Our country was more open than Spain. But...also here you cannot do everything you like and I think it can be lonely in a far country all by yourself.*

*I am hopeful that Corona is staying away and Kerman can do nice things in Holland besides working.*

*Because we are very satisfied of him, I asked him to stay for a year.*

Espero que tengan un muy buen año educativo en Van Dijk Group. Tu carrera ha comenzado y espero que te quedes en los Países Bajos.

Kerman es un buen ejemplo para futuros estudiantes.

Ton Schoonus · Van Dijk Groep

## PRACTICING ENGLISH

Azken urteetan bezala, aurten ere, Lanbide Heziketako ikasleei ingelera ikastaro bat egiteko aukera luzatu diegu. Ikastaro honetan ahozko jarduna lantzen dute, helburua ingelera komunikatzeko gaitasuna lantzea da. Erasmus diruz lagundutako ikastaroa da, baina edozein ikaslek parte har dezake.

Ikasturte honetan 8 ikaslek eman dute izena, batzuk 2. mailakoak eta beste batzuk 1.º mailakoak.

Aukera paregabea dute urritik otsailera bitartean bi arratsaldez haien jarduna lantzeko. Gainera, %80 bertaratzea betetzen badute, dohainik aterako zaie ikastaroa.

Espero dugu, datozen ikasturteetan gurekin hasi edo jarraituko duten ikasleek aukera honetaz baliatzen jarraitzeko aukera izatea. Eta parte hartzera animatu nahi ditugu, nahiz eta arratsaldeetan gelditu behar izatea esfortzu bat izan, aterako dioten etekina betirako izango baitute.

Este curso hemos vuelto a ofrecer al alumnado de FP, la posibilidad de realizar un curso de inglés para trabajar la comunicación oral. Tenemos un grupo de 8 alumnos y alumnas, que desde octubre hasta febrero verán reforzado su nivel de inglés. Este curso está subvencionado por Erasmus, y les será gratuito si su asistencia al mismo supera el 80% de las horas.

### **INIKA: Zaraoberen apostua komunikazioa hobetzeko.**

Urtarrilean Inika plataformaren mugikorrerako aplikazioa kontratatu da, AMPA Babioren diru-laguntzarekin. Gomendatzen diegu guraso guztiei aplikazio hau instalatzeko, gure komunikabide nagusia izango baita hurrengo urteotan: hutsegiteak, abisuak, ikasleen jarraipena, mezuak eta boletinak plataforma honen bidez bidaltzen ari dira dagoeneko.

Honekin batera, eta errefortzu bezala, Whatsapp difusio taldea ere erabiltzen dugu, aplikazio honek daukan zabaltasuna eta berehalakotasuna baliatuz.

En Enero se contrató la aplicación para móvil de la plataforma Inika, con la subvención de AMPA Babio. Recomendamos a todos los padres/madres que instalen esta aplicación, que será nuestro principal medio de comunicación en los próximos años: faltas, avisos, seguimiento del alumnado, mensajes y boletines ya se están enviando a través de esta plataforma.

Junto a esta plataforma, y como refuerzo, utilizamos el grupo de difusión Whatsapp, aprovechando la aceptación e inmediatez que tiene dicha aplicación.



# HOBKUNTZAK

## FRONTOIAREN BERRIZTAPENA

Otsailean kiroldegiko zorua zaharberitu zen. Gorputz heziketo irakasleen aholkuei jarraituz, zoruaren akatsak konpondu ostean, kolore ezberdinetako erresinazko geruza bat eman zaio. Hobekuntza estetikoetik haratago, oso labaingarria zen zoruaren zuzenketa da aldaketa garrantzitsua, ikasleen ziurtasuna bermatzen delako kirolaren praktika bitartean. Aplicaciones de resinas gjj, s.l. enpresak eraman du erreforma honen ardura.

En febrero se renovó el suelo del polideportivo. Siguiendo las indicaciones de los profesores/as de educación física, después de arreglar las diversas imperfecciones del suelo, se optó por una capa de resina en diversos colores con tratamiento antideslizante. Más allá del cambio estético, la importancia de la mejora radica en asegurar la seguridad en la práctica del deporte. Ha realizado la reforma la empresa Aplicaciones de resinas gjj, s.l.



## AKUSTIKAN HOBKUNTZA

ID acústica enpresaren laguntzaz sistema bat instalatu dugu 039 gelan (DBH 3E) akustika hobetzeko. Sabaian erantsitako plakek soinuaren oihartzuna xurgatzen dute, ahozko komunikazioa hobetuz. Hartutako neurketen arabera erreberberazio denbora %66an jaitsi da sistema honi esker, 18 segundutik 0.6 segundura pasatuz. Akustika eskasena duten ikasgeletara sistema hau zabaltzea da plana.

Con la ayuda de la empresa ID acústica se ha instalado un sistema para mejorar la acústica en el aula 039 /DBH 3E). Las placas colocadas en el techo absorben el eco del sonido, lo que mejora la comunicación oral. Según las mediciones obtenidas, el tiempo de reverberación ha descendido en un 66% (de 1,8 segundos a 0,6). La intención es extender este sistema a las aulas que sufren de peores condiciones de acústica.



## KILI KOLO ARETO BERRIA

Ikasturte honetan areto berria estreinatu(ko) dugu. Amurrioko Udalak hutsik zeukan Kili-kolo haurtzaindegia Zaraobe institutoari maileguan utzi dio COVID-19-k sortutako egoerari aurre egiteko baita datozen ikasturteetan erabiltzeko ere.

Kili-kolo aretoa Lanbide Heziketako patioaren bestaldean dago kokatuta, Etxegoien kalean eta "Menpekotasunaren egoeran dauden pertsonei arreta"-ren graduan erabiliko da, bigarren mailako ikasleekin, hain zuzen.





Aretoa atondu ostean, klaseak emateko bi gela sortu dira, klase teoriko zein praktikoak emateko. Graduaren arlo praktikoan espazio zabala behar da "Destrezas sociales", "Aisialdia" eta "Arlo psikosoziala"-ren edukiak landu ahal izateko eta sortutako espazioa ezin da egokiagoa izan helburu horretarako.

Eskerrak eman behar dizkiogu Amurrioko Udalari gure beharrak kontuan hartzeagatik.

## LEIHOEN ZAHARBERRITZEA

Azken urteotan DBH eta Batxiller ikasgeletako leihoak joan gara aldatzen. Abenduan azken faseari ekingo diogu, 1DBHko ikasgeletako leihoak zaharberrituz. Honela, ikastetxeko isolamendu termikoa ziurtatuko dugu eta, aldi berean, ardatz aldagarriko leihoak instalatuz, haizeztaze egokia egitea bermatzen da. Azken puntu honek berebiziko garrantzia du gaur eguneko pandemia egoerari aurre egiteko.

Erreforma hau Persianas Muñoz Castillo Enpresak burutu du.

En los últimos años se han ido cambiando las ventanas del edificio de Bachillerato y ESO. En diciembre se completará la última fase con la renovación de las ventanas en las aulas de 1º de ESO. Así tendremos garantizado el aislamiento térmico en todas las aulas y, a la vez, con la instalación de ventanas oscilo-batientes se optimiza la ventilación. Este último punto, ha cobrado especial relevancia a la hora de hacer frente a la situación de pandemia actual.

La obra ha corrido a cargo de persianas Muñoz Castillo



# OHOREZKO MATRIKULA

Kurtso honetako ohorezko matrikula jaso dutenak izan dira:

**JOSU JON ETXEBARRIA,**

**IRAIA ASTARLOA**

**CLAUDIA ANABITARTE.**

***Zorionak!!!***



# Digitalki ON

Web orrialde berriaren aurkezpena, datorren urtean, Zaraoberako web orri berria izango dugu, momentuz Lanbide Heziketako edukiak berriztu dira bakarrik, baina aurrerago Batxilergo eta DBHko edukiak gehituko dira.



## SEI IKASLEK HARTU DUTE PARTE MUGIKERTU IKERKETAN

Helburua Euskadiko haur eta nerabeen jardura fisikoaren eta sedentarismoaren maila aztertzea da.

Batxilerreko lau ikaslek eta 1 DBHko beste bik hartu dute parte Eusko Jaurlaritzak sustatutako programa honetan, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatearen gidaritzapean.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 120 ikastetxetako 1.111 ikasle boluntariok hartu dute parte ikerketan. Parte hartzaileek azelerometro bat eraman dute eskumuturrean 7 egunez eta epe berdinari dagokion eguneroko bat bete dute. Aparailu honek parte hartzaileen jardura fisikoa aztertzen du aste horretan zehar.

Ikerketa honek parte hartzaileen anonimatoa errespetatzen du, eta lagunduko du gazteen kirol eta jardura fisikoaren ohiturak ezagutzen.



## EUSKARALDIA



### ZARAUBE ARIGUNEA

Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro.

# IKER LOIDI



Urtero bezala, Iker Loidi ikasle ohiak batxilergoko bigarren mailako ikasleekin bildu zen gaurkotasun handiko gaia azaltzeko:  
"KLIMA ALDAKETAK ERAGINDAKO GAITAXUN BERRIEN ARRISKUAK".

Eskerrak ematen dizkizugu, zure hurbiltasunagatik, ezagutza zientifikoaren hedapenagatik, eta ikasleengan piztu duzun interesagatik.

## PRAKTIKALDIA JANIRE GIL



Nire mekatronika ikasketak bukatzeko azken atala praktikaldia izan da. Amurrioko Kider enpresan burutu ditut, bi helebeteetan zehar. Nire eginkizuna mantenimendu teknikariarena izan da. Nire esperientzia oso positiboa izan da. Klasean ikusten ez diren gauza batzuk ikusteko aukera izan dut, makinaren matxurak landuz. Utzi didate aberiak konpontzen, lanabesen erabilera irakatsi didate, eta matxurak konpontzeko eman behar diren urrats guztiak ere ikasi ditut. Oso ondo portatu dira nirekin eta, zalantzak izan ditudanean, beti argitu dizkidate. Praktikak bukatuta, orain proiektua egin eta aurkeztearen zain nago. Baina praktiketari esker seguruago nago lan hau burutzeko.

Eskerrik asko **Kiderren** izan ditudan lankideei.

## ESKOLA KONTSEILUAREN BERRIZTAPENA

Ikasturte honetan, 2020-21, Eskola- Kontseiluko kideak berritu ditugu.

### HAUEK DIRA ESKOLA KONTSEILUAREN KIDE BERRIAK:

#### GURASOAK:

Esther López Javier  
Maria Luisa Ríos Blanco  
Alberto Jiménez Alonso  
Luis Alberto Ribacoba Pereda  
Miren Agurtzane Yarritu Unanue  
Olga Etxeguren Zurimendi

#### IKASLEAK:

Ana Navaridas  
Oihana Aguirre  
Maia Ocaña  
Saray Yuste  
Claudio Carlos Coman  
Mohamed Abidin  
Aitzol Campo



# JARDUERA OSAGARRIAK

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

### INGURU NATURALA

Mugikortasun murriztuaren garaian, Zaraobeko zenbait tutorek nora joan aurkitu dute: inguru naturala. Txarlazo, Babio, irteera xumeak izanik ere, onura handiak ekar ditzakete:

- Taldearekiko elkarbizitza eta harremanak eskola eremutik at indartzea.
- Gure ingurune naturala ezagutu eta balioestea.
- Ahalegin fisikoa garatzea, duten adinerako oso gauza ona baita.
- Pandemiaren kontrako protokoloa eta araudiak ulertzea eta betetzea, bai ikastetxearen barruan, bai kanpoan.

Arrakasta itzela!!!!



### SANTOTOMAS

Abenduaren 22an, ezohiko SANTOTOMAS ospatu genuen, osasun arauak utzi ziguten neurrian. Ez ziren faltatu, adibidez, baserritar jantziak, egunari alaitasuna eman ziotena. Photocall-a ere egin zen patioan.

Azken klase- orduan, gelen arteko quiz lehiaketa bat antolatu zen. Horretarako galdetegi bat prestatu zen Kahoot plataforman. Oso dibertigarria izan zen! 3Gko ikasleak San Tomas lehiaketaren irabazleak izan ziren. ZORIONAK!!!!

Horrez gain, beste urteetan bezala, saski baten zozketa egin genuen. Aurten, bertako produktu ekologikoez osatutako otar bat zozketatu da.



Lagun agurgarriak  
Zaraobe institutuko zuzendaritzak, ikas komunitate osoaren izenean,  
**OSASUNEZ GOZA DEZAZUEN 2021 URTEAZ,**  
guztionez, ziurrenera, onuragarriago izango dena.

# ZARA OBETARRAK



## MIRIAM BUESO, GURE IKASLE OHIA

Miriam Bueso Zaraobeko ikaslea izan zen 2007tik 2014ra bitartean. Aspaldian ikusi gabea geneukan, baina egun hauetan kolaborazio bat hasi du institutuarekin eta bere bizitzari buruzko jakinmina piztu zaigu.

### **Zein izan da zure ibilbidea Zaraobetik atera eta gero?**

Goi mailako hiru ziklo egin ditut: ikusentzunezkoak, haur hezkuntza eta gizarteratze. Gaur egun Gizarte Hezkuntzako gradua ikasten nago urrutiko unibertsitatean, adingabekoen egoitza batean lanean nago eta Gurutze Gorrian ere bolondres jarduten dut, proiektu batzuk koordinatzen. Sasoi ezberdinetan Gasteizen bizi izan naiz, baina orain Amurriora bueltatu naiz.

### **Zaraobe ikastetxearekin harremana galdu duzu?**

Bai, guztiz. Orain pixkanaka harremana eskuratzen gaude, Amurrioko Gurutze Gorrian dagoen proiektua kudeatzen hasi naizelako. Horrek biltzera eraman gaitu.

### **Zer da zure lanaren onena eta txarrena?**

Nire lana biziki gustatzen zait. Zerbait txarra aukeratu beharko banu, ordu-tegiak izango lirateke, egun askotan oso goiz altxatu behar naizelako. Onena? Jendearekin feedbacka egiteko dudak aukera dela esango nuke. Egunerokotasunean gaitasun berriak lantzerantz bultzatzen zaituen lana da, momentu horretan besteen egoera garrantzitsuena baita.

### **Boluntariotza gomendatzen duzu? Zergatik?**

Bai, nire bizitza aldatu zen. Bolondresa izateak, bizitzan daukazu ikuspuntua aldatzeko gaitasuna ematen dizu. Nituen arazoak erlatibizatu eta bizitzan zer nahi nuen ikusten lagundu zidan. Hasieran ez nintzen oso gogotsu joaten, aitortu beharra dut. Gero, jendea ezagutzen hasten zara, beste esparruetan lortu ezin dituzun esperientziak eskuratuz zoaz, eta azkenean zure bizitzaren parte bihurtzen da.

### **Lanaz gain, zeintzuk dira zure afizioak (enteratu gara Aiaraldean atera zarela)?**

Amurrioko musika eskolan urte asko eman ditut, aurtun musika alde batera utzi behar izan dut. Nire ahizpa Idoiarekin eta Paula Barcelorekin ezagutzen duzuen Ilargiak taldea osatu genuen, baina gaur egun bizi dugun egoera dela eta, azken boladan, ez dugu proiekturik.

### **Zeintzuk dira zure planak etorkizunerako?**

Etorkizuna... oraingo errealitatean planak egitea nahiko arriskutsua iruditzen zait. Beste herrialde batera joatea gustatuko litzaidake, hezitzaile edo gizarteratzaile bezala.

### **Zer aholkatuko zenieke Zaraobeko ikasleei?**

Bizitzen ari zareten etapa amaituko da, ez du betiko iraungo, eta zenbat eta gehiago ekin, gogotsuago aterako zarete. Batzuetan institutua zaila egiten da gertaera ezberdinengatik, urteak pasa eta atzera begiratuko duzue; garai hartatik nola hazi zareten antzemanek. Zuen helburuak eta ametsak jarraitu, batzuetan, horiek zapuzteko ideia daukaten pertsonekin topo egingo duzue, baina jakin ezazue zuen bizitzan azken hitza zuek daukazuela. Zuen aukerak zuenak dira eta zuen etorkizuna erabakiko dute.

# PUNTU MOREA

## HEZKIDETZA 2020-2021

### ASKI ETA ASKE

Urrian, Aiaraldea aldizkariaren eskaera aintzat hartuz, indarkeria matxistari buruzko galdetegia egin da 14-18 urte bitartekoen artean. Aiaraldeak gazteen emaitzekin gehigarri bat atera du. Horrez gain, tailerrak eta dantza lehiaketa ere egon dira, Laudion zein Amurrion. Aiaraldeak egindako erreportajeon, beste batzuen artean, datu hauek atera dira:

- %21.4k aitortu du genero indarkeria bizi izana.
- Baimenik gabe gorputza ukitu diotela salatu du %31,3k, hirutik batek.
- Etxera bidean, beldurra sentitu du %55,7k, eta soinean daramanagatik epaitua sentitu da %32,8.
- Indarkeria jasanez gero erasotua babestu eta salatzerantz animatuko luke %71k.

### AZAROAK 25A

Aurten, Azaroak 25a ere desberdin izan da gure ikastetxean. Tutoretzan landu da, bakoitza bere gelan, bideo laburrekin eta film batekin.

### EGUNEROKOTASUN ONARTEZINA

(...) Burura datorkit, aurrerago kontzertuetara joatean ipurdia ukitzen zidatela nabaritzen nuenean. Niri, eta nire laguneri. Gogora datorkit, nire bakoitza zen mutil horrek, auzoko jaietan, nire lagunak urrundu ziren momentu bat aprobetxatuz eskumuturretik heldu, eta txosna-gunetik atera ninduen. Ez nuen askatzerik, ez zidan kasurik egiten. Momentu horretan nire gurasoekin gurutzatu nahi nuela besterik ez nuen pentsatzen, aska nezan. Bidean, lagun batzuekin gurutzatu ginen. Bati joan nahi nuela esan nion. Ez zidan sinetsi eta barre egin zuen. Jarri nuen aurpegia ikusirik eskumuturra askatzen lagundu zidan. Nor zen mutil hori? Ni mugitzen nintzen giroan zebilen tipo bat, ezkerrekoa, talde feminista baten ikurra lepotik eskegita zeramana. Urteetan ikusi izan dut lepoko horrekin. Niretzat mutil ezaguna zen, giro berean genbiltzalako, baina orokorrean oso ezaguna zen jendearentzat.

Tipo berdinak, beste behin, taberna batean ohartu gabe etxeko giltzak kendu zizkidan. Ez zizkidan bueltatu nahi berarekin joan ezean. Ez dakit zenbat denbora ibili ginen, ni eta nire lagunak giltzak eskatuz. Nahiko oihu eta denbora eta gero etsi zuen. Horrelakoak, gehiagotan egin zizkidan. Unibertsitatetik irtetean han zegoen batzuetan nire zain.

Urte pare bat beranduago, jai batzuetan, beste mutil ezagun batekin elkartu nintzen. Hurrengo egunean deitu ninduen, eta beste ezer egitekorik ez nuenez, berarekin gelditu nintzen. Eta han hasi zen ia 9 urtetako erlazio bat, beste asko asten diren bezala, pertsona hori asko ezagutu gabe. Garai hartan, jairik jai joatea, eta ondo pasatzea besterik ez nuen buruan. Berarekin gehiago irteteko eskatu zidan, eta horrela, nire lagunekin gutxiago egoten hasi nintzen. Baina tipo on batekin nengoen; ezkertiarra, arazo sozialez arduratua, emakumeen aldeko manifestaldietara zihoana, mundu guzti horretan oso oso ezaguna, talde feministaren ikurra eskegita zeramanaren lagun bat...

Gauzak ohartu gabe aldatzen hasi ziren, nire lagunekin gero eta gutxiago irteten nintzen gauetan. Gero, haiekin irteten nintzenean bera ere egoten zen. Berarekin bizitzen hasi nintzen, eta orduan, igandeetan bakarrik ikusten



nituen lagunak, kafe bat hartzen Athletic-en partidua ikusten genuen bitartean. Etxera bueltatzean berandutzen banintzen, haserretzen zen. Eta nik barkamena eskatzen nion, joan aurretik, hainbat alditan, berandu ez nintzela bueltatuko esan behar bai nion, eta nire hitza bete ez nuelako.

Bere laguna, talde feministaren lepokoa zeramana, neska batekin hasi zen, baina gutxi iraun zuten. Berarekin aurkitu nintzen batean galdetu nion zelatan utzi zuten. Bigarren aldiz jo zuenean utzi egin zuen. Ez zuen inguruan ere ezer esan. Aurrerago beste neska batekin hasi zen. Utzi zuten ere. Berarekin ere beste batzuetan aurkitu nintzen, gauza bera, eta berriz ere ez zuen ezer esan. Nik ezta ere. Egun batean, hainbat gauzetaz nekatuta, maleta prestatu eta gurasoen etxera bueltatzea erabaki nuen. Bera bueltatu arte itxaron nuen nire asmoa azaltzeko. Ni beti bezain txintxo. Egingo nuena kontatu nionean, nire ondoan zegoen ateari ukabilkada eman zion, atea apurtuz. Nola utziko nuen nik atea horrela? Konponduko nuela eta orduan alde egingo nuela pentsatu nuen. Atea konpondu nuen, bai, baina ordurako alde egiteko asmoa nire buruaren izkina batean geratu zen.

Ez nintzen nire lankideekin bazkari ezta afarietara joaten. Zer egin behar nuen nik han ba? Hori ez zen nire tokia... Hori da entzuten nuena. Berarekin soilik irteten nintzen. Etxeko lanak egiten nituen, berak askotan aitzakiak aurkitzen zituen ez egiteko, nire kasuan balio ez zutenak.

26 urte bete nituen. Pisua elkarrekin erosi genuen. Baina nire burura bat-bateko burutazioak etortzen hasi ziren. Argi nuen ez nuela seme-alabarik berarekin izan nahi, baina umezalea ez naizenez, ez zitzaidan oso garrantzitsua iruditu. Dena den, ideiak hor jarraitu zuen, txokoren batean nabarmen gelditu zen nire buruan. Jendaurrean esaten zituenak lotsatzen ninduten batzuetan. Normala ote zen bikoteaz horrelakoak pentsatzea? Aurreko ideiarekin txokora joan zen hori ere. Ezkontzeko aukera aipatu zidanean, tripa barru-barrutik "EZ!" borobil bat atera zitzaidan, biok harritu ginen esan nuen eragatik. Horrek, kartel handi bat jarri zuen nire buruaren txoko horretan, momentuan ohartu bai nintzen, ez nuela hori batere nahi. Gogorrena hurrengoia izan zen: irakaskuntzan hasia nintzenez, ikastaro batzuk beharrezkoak nituela pentsatu nuen. Banekien, berak ez zidala egiten utziko, beraz nire kabuz bilatu nuen ikastaroei buruzko informazioa eta izena eman nuen. Izena eman eta gero, neure buruaz harro irten nintzen kalera, "¡Jodete!" pentsatu nuen. Hurrengo segunduan: "Zer egiten ari zara?". Beste kartel bat nire buruaren txokoan. Kontatu nionean noski, kriston bronka bota zidan. Nola egingo nuen ikastaro hori? Ez al nintzen etxean egongo? Baina nire asmoak firme mantendu nituen.(...)

**Osorik irakurri nahi baduzu, institutuaren web orrian egin dezakezu.**



# JUBILAZIOA

MAITE DURANA eta NELI FRANCO



A principios de noviembre se jubilaron dos mujeres con una larga trayectoria en el centro, y en el mundo académico.

**Maite Durana** forma parte de la historia de la fusión de Zaraobe con el instituto Ciudad de Urduña. A finales de los 90 estos dos centros convergieron en uno solo, con sede en Amurrio, lo que supuso el encuentro de profesorado, personal no docente y alumnado en las actuales instalaciones. Maite, administrativa, es la última representante de ese grupo de personas que procedían del centro de Urduña y que tanto aportaron a la formación profesional del Alto Nervión, como Eduardo Iriondo, Pedro Trápaga, Víctor Prellezo, Javier Gutiérrez, Pilar Olabuenaga, Rafa Navarro.

Maite Durana empezó en el instituto de Urduña con 18 años, a mediados de los 70. Son muchos años pues, dedicados a las matrículas, becas, gestión de actas, atención en ventanilla... todo aquello, en definitiva, que hace posible que el centro funcione con eficacia y precisión. Por otro lado, su ciudad natal siempre ha sido importante para ella, y por ello ha estado en primera línea en momentos importantes, como fue el de la implantación de la escuela pública en la ciudad, donde tuvo un activo papel.



**Neli Franco** también tiene sus raíces en la ciudad de Urduña, si bien desde hace unos años reside en Amurrio. Al igual que Maite, tuvo también un papel protagonista en la implantación de la escuela de Urduña, pues fue su primera directora. Era el año 1995 y, mientras se finalizaba el actual edificio, se impartieron clases en el edificio de la Aduana. De Urduña pasó a Lucas Rey, donde ejerció de profesora de educación infantil. A Zaraobe llegó en 2009. Su labor de profesora terapéutica se ha desarrollado esencialmente en el aula estable, junto con su compañera Nere Núñez y un pequeño y maravilloso grupo de alumnos y alumnas.

**Maite, Neli, gracias por vuestro trabajo en Zaraobe. Os deseamos que disfrutéis de vuestra gente y vuestras pasiones con salud y alegría. Hasta siempre.**